

Santa Maria Katedralaren azpiko eskuizkribu ezezagun bat eta Carlos Menaren itzulera, Arabako Antzinako Musika astearen 44. edizioko protagonista nagusiak

Vitoria-Gasteiz, 2 de julio de 2026. Arabako Foru Aldundiak antolatzen du, irailaren 11tik 20ra, Vitoria-Gasteizen, Iruña Okako Santa Catalina lorategietan eta Antezana Forondan, **azken xehetasunetaraino mimos eta arretaz landutako 44. edizio bat, erabaki bakoitzaren erdigunean publikoa beti jarrita eta bere nazioarteko proiektzioa eta kalitate artistikoa berresten dituen.**

70 urteren ondoren berririo entzungo den eskuizkribu bat

Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedralako sakristiaren azpian agertu da, galdutzat jo zenetik ia 70 urtera, 1792an datatutako eskuizkribu bat, XVI. mendeko jatorrizko baten kopia izan litekeena. Rafa Mendialduaren eta Manu Sagastumeren ikerketari esker, haren orrialdeetan Cristóbal de Moralesen Hilen Ofizioa eta **orain arte argitaratu gabeko** meza bat identifikatu ahal izan dira, Europa osoan apenas alerik gordetzen den horietakoa. **Intonaciones** taldeak berreskuratuko ditu orrialde horiek irailaren 17an, Katedrallean bertan, kontzertu-solasaldi formatuan, horrelako aurkikuntza dokumental baten prozesua lehen aldiz publikoari zabalduz.

Carlos Mena Arabara itzultzen da

Edizio honek **Carlos Mena kontratenorraren Arabarako itzulera** ere ekarriko du. Carlos Mena antzinako musikaren nazioarteko erreferente handienetako bat da, eta irailaren 19an arituko da, Concerto 1700 taldearekin batera, Jesús Guridi Kontserbatorioan. Kartelean lagunduko diote berari nazioarteko proiektzioko beste izen batzuek, hala nola Collegium Musicum Madrid eta Martín Llade, OBNI eta Miriam Hontana, edo Conductus Ensemble, beti helburu berari jarraitzen dion programazio batean: **ahalik eta kalitaterik onena eskaintzea eta antzinako musikaren estatuko eta nazioarteko zirkuituan erreferente izatea.**

Araba, jaialdiaren agertoki naturala

Vitoria-Gasteizek berriz ere protagonismoa partekatuko du Arabako lurraldearekin. **Iruña Okako Santa Catalina lorategiek** programazioko kontzerturik berezietako bat hartuko dute, eta Antezana Forondako elizak urtebete gehiagoz bat egingo du jaialdiaren ibilbide territorialarekin. Berritasun gisa, aurtan Antzinako Musika Asteak **Atauriko ibilaldi musikala proposatzen du, Ega ibaiaren ibilguari jarraituz, eta ondoren birgaitutako Lucía Meategira bisita eginez**, ondare naturala, industrial eta soinuak ibilbide bakar batean uztartzen dituen esperientzia bat. Kokaleku bakoitza **asmoz aukeratu da**, originaltasunaren, esperientziaren eta Arabako ondarearen eta lurraldearen balioztatzearen alde eginez.

Talentu gaztea eta berrikuntza

Jaialdiak irailaren 11n zabalduko ditu ateak, **Arabako Arte Ederren Museoko lorategietan**, hasierako kontzertuarekin, **Jesús Guridi Kontserbatorioko ikasleak** protagonistak izanik; horiek berek jarriko diote amaiera programazioari irailaren 20an ere. Finkatutako lankidetza bati esker, Arabako musikari gazteek nazioarteko proiektzioko artistekin kartela partekatzeak aukera dute, eta horri gehitzen zaio Euskal Barrokensemblaren Xirribit programa, publiko gazteenari zuzendua eta euskaraz. Aurten berrikuntza **Lohi Lebekie**-ren eskutik iritsiko da, errenazimentuko musika eta musika elektronikoa nahastuko dituen Arte Ederren Eskolako Paraninfoan: Arabak tradizioa eta begirada garaikidea jaialdiaren bazter guztietan nola uztartzen dituen erakusten duen adibide bat gehiago.

Espazioen aukeraketan jarritako arreta, bikaintasun artistikoa, talentu gaztea eta berrikuntza eskutik doaz 44. edizio honetan, **orain arteko jaialdirik osoena, orekatuena eta kalitate handienekoa** lortzeko.

